


BALIO PROPOSAMENA

Gure bezeroei balio kuantitatibo eta kualitatiboa eskeiniko diegu. Alde batetik, erreziklatzeko kontzientzia ezartzea nahi dugu. Bestetik, horren truke baleak eskaini nahi ditugu. Beste enpresengandik bereizten gara ez dugulako antzeko lehiakiderik, eta erreziklatzeko modu berri bat sortzen dugulako, edukiontzi berritzaileekin. Gainera, proposamen honen bitartez, herriaren garbitasuna eta kutsaduraren murrizketa lortu nahi dugu.

Honako elementu hauek sortzen dute balioa gure enpresan eta lehiakideengatik ezberdintzea laguntzen digute.

- **Berrikuntza:** Gure enpresak erreziklatzeko prozesu berritzaile bat eramaten du aurrera, eta herriko komertzio ezberdinak bultzatzen laguntzen du, bezeroak bertan erosketak egitea sustatuz baleen bitartez. Gainera gure ingurunean ez dago antzeko ezer eskaintzen duen beste enpresarik.
- **Lana erraztea:** Udaletxe zein erakunde publikoei (hau da, gure bezeroei), lana errazten diegu, beraiek arduratu beharrean guk egiten dugulako birziklatzearen prozesu guztia.
- **Pertsonalizazioa:** Sortutako app-ean erabiltzaile bakoitzak kode bat jasoko duenez edukiontzien erabilera pertsonalizatua da eta lortzen dituzten baleen bidez erosi ditzaketen produktu ezberdinak ere bakoitzaren gustuen araberakoak izango dira.
- **Erabilerraztasuna:** edukiontziak erabiltzeko bakarrik kode bat sartu behar denez erabiltzeko errazak izango dira, beraz, biztanleria guztiarentzat egokitutakoak.
- **Eskuragarritasuna:** Durangaldean instalatuta egongo direnez, erabiltzaile guztiek etxetik hurbil zaborra botatzeko edukiontziak izango dituzte eta gure enpresak eskaintzen dituen abantailez baliatu.
- **Diseinua:** Edukiontzien diseinu berritzaile eta teknologikoa izango dute.
- **Prezioa:** edukiontzi hauek erabiltzea dohainekoa izango da herriko biztanle guztientzako, hau da, aplikazioaren erabiltzaileentzako. Gure produktuengatik ordainduko dutenak, gure bezeroak hain zuzen ere, jarduera burutzen dugun herrietako Udaletxeak izango dira. Hauei eskainiko diegun prezioa, eskaintzen dugun produktu eta zerbitzua balioan jarriz arrazoizkoa da.



Bezeroak motibatzeneko herriko denda ezberdinetan erabiltzeko baleak eskainiko dizkiegu, horietan produktu ezberdinak erosteko, horrela herriko komertzioak bultzatuz. Bale horiek udalarekin akordio batera heldu eta gero aukeratuko ziren. Beste alde batetik herriari birziklatzeko makina espezializatuak eskainiko dizkiegu, pertsona bakoitzak zenbat erreziklatu duen jakiteko. Horretarako kontenedorei konektatuta egongo den App baten bidez, botilak kontatuko ditu eta horren arabera puntu ezberdinak esleituko zaizkio erabiltzaileari, gero puntu hauek diru bihurtuko direlarik.

Gaur egun, zaborraren kudeaketa aurrera eramaten duten enpresek egiten duten prozesua oso kutsatzailea da eta herritarrek ez dute ezer jasotzen birziklatzeagatik, beraz ez dago motibaziorik beraiengan eta horrek ez du ezer laguntzen ingurumenaren zainketan. Horregatik, gure enpresan erreziklatzeko motibazioa pizten dugu, eta gainera herriko dendak sustatzen ditugu. Horretaz gain, biltzen dugun zaborra birziklatzeko enpresetara eramango dugu beste erabilera bat emateko eta modu horretan ekonomia zirkularra sustatzeko.

Guzti hau kontutan izanik, herri ezberdinetako udaletxeek gure zerbitzuak kontratatzeko aukera asko ditugu, enpresa berritzailea garelako eta gaur egungo zaborraren arazo handiari aurre egin diogulako.